

Pepita Mendizabal Zendoia

*Amasa-
Villabona,
Gipuzkoa
(1935-2016)*

Aurkibidea

Biografia



Amasako Goikoetxeazpi baserrian jaioa da Pepita Mendizabal. Amasan ibili zen eskolan, eta han bizi izan zuen umezaroa eta gaztaroaren zati bat. Etxean egin zuen lan garai hartan. Hemeretzi urte bete berriak zituela, ordea, Hernialdera ezkondu zen, Ezkamendi baserrira, eta han bizi izan da geroztik. Senarrak ere parte hartzen du tarteka elkarrizketan.

Zintak

VIL-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-25
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Goikoetxeazpi baserria

- **Erref:** VIL-005/002
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Goikoetxeazpi baserriaren kokapenaz ari da. Iturriaren eta labaderoaren aldamenean kokatuta zegoen baserria. Hala ere, betidanik ezagutu izan du ura etxean. Argindarra ere bazen bera jaio zenerako.

2. Baserriko lanak

- **Erref:** VIL-005/003
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Baserrian egiten zituzten lanak izendatzen ditu. Idiak hartuta, basoan botatako enborrak garraiatzen ibiltzen zen aita.

3. Mojen eskola

- **Erref:** VIL-005/006
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:08:12. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Moja eskola zegoen Amasan, elizaren aldamenean. Neska zein mutil joaten ziren bertara. Eskolako ikasgaien artean, laboreak egiten irakasten zieten. Euskaraz ikasi zuten.

4. Anaia gazteenaren bihurrikeria

- **Erref:** VIL-005/008
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Anaia gazteenari gertatutako anekdota kontatzen du. Iturritik erori eta kopetan egin zuen zauri baten inguruko gertakizuna. Mojak egindako ukendu bati esker sendatu zitzaion zauri hura.</p>

Transkripzioa

- Ta hurrek bezelako bihurrikerik itten zenittuen?
- Ez ze...nik holako zeak...batian apuro earra bai zeatu...zein zan? Antton o Inaxio? Inaxio izan zan, anairik gaztena. Monjakin paseatzea juten giñan, harea ta honea ta...haitan ta, bezperetatik atea, ta behin basarrin alderdi batea, bestian bestea ta geo ikuillutik behera ta...hola. Eta...gu hiru txikina deu neretik bi gaztiak dittue bosna urte diferentziya, ta gazteenak dittu hamar urte gutxiyo nik baiño. Eta hua're eskola juteko adiñekua- o zean ez dakit ba bi-hiru urte o ze izango zittun...bi baiño gehio izango zittun, hiru lau bat eo?-"kuestiyua...hau usatu leiket? Jun neike honekin eskola?" Ta, han ibilikoa ta hau ta hua ta mojak. Ta bueno ba eskola hasi deu, ta ez dakit zenbat denboa izango zan. Haik lentxio atea, hamaika t'erditan o ez dakit ze ateatzen zien mutillek, ta neskak atzetikan, ta nun ikusi nittun plazako itturin gora iyota, monjetatik behetik gora ikusi nun, itturri gaiñea iyota. Joxe Iñazio du be izena izatez, baiño Iñixito gendun. Zeatik mutil guzik zian Joxe izena...Joxekin! Joxe Mari zaharrena, Julianek ez du Joxeik ez harek Pedro Julian zon, du, eta Joxe Antonio ta Joxe Iñaxio. Ta, Iñixito. Honek askotan esaten dio oaindik, "ze habil, zea...Iñixito!". Eta, hala, han ikusi nun ta, jun naiz korrika, ta nunbatte hor zeagatik, ni ikusi niñunian eo bestela eonola're eroitzen da! Ta holakotan siñalian du bere [...]... ebakiya. Ta asteartia zan, eta etxea eaman deu besuan o...ahal dala nolabaitte! Ta ama orduntxe etorriya, zeatikan merkatu Tolosan, ui, Villabonan asteartian merkatu izaten zan, oain'e bai, eta ta meikuta, Villabona. Ta in zizkian hola bi gantxo jarri, ta gantxok zulu hoietan dittu, ta geo zea ta handikan bi-hiru eunea o haundittu in zitzaion aurpegiya, ta eaman zioten nubaitt zea...bat ondo garbittu gabe eo...puztu pixka bat o haunditu in zien...ta kendu in zizkien zeak. Eez! Hoi pasa eta geo mojak, ni zeatzeko, haikin juteko, hain etxea...bueno...eskolara, monjan etxea...zean izan jaiyin bazkal ondorengo eskursiyua in ta ume bat ikusi zuen, ta begik haunditzen ai zizkala, eta ukendua emango ziela, beak indakua o ukenduba. Ta hua jarri, eta zea, gantxok eta libratu zizkan, han zornia o zea euki, puztun iya nunbaitte azpitik, ta bai ta ordun han geatu zitzaion marka, gure Iñaxiok kopetian dun marka. Geo illi hoi dana juna dauka, eta galtzen badeu señalia han dauka harek.

5. Odol transfusioak etxean

- **Erref:** VIL-005/009
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Praktikantea eta medikua ibiltzen ziren etxez etxe. Bere anaiari umea zela pneumonia diagnostikatu ziotenean ere beharrezko odol transfusioak etxean egin zizkion medikuak.

6. Santuei promes egin

- **Erref:** VIL-005/010
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Santuei promes egitea ohizkoa zen. Seme gazteena sendatzen bazen, Amasatik San Rokeraino (Arano, Nafarroa) oinez joango zirenaren promesa egin zuten Pepitaren gurasoek.

7. Umetan bakarrik sekula ez

- **Erref:** VIL-005/014
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:23:42. **Bukatu:** 00:24:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Umetan ez ziren sekula jolasean bakarrik aritu. Baserriren batean edo mojekin tertulian pasatzen zituzten igande arratsaldeak; bakarrik sekula ez. Asteasuko jaietara, egun argiz itzultzeko, lagun taldea korrika nola joan ziren kontatzen du.

8. Ezkontza eguna

- **Erref:** VIL-005/021
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:34:01. **Bukatu:** 00:35:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

19 urterekin ezkondu zen Pepita. Ezkontza eguna dakar gogora. Ezkondu eta hurrengo egunean, Madrilera joan ziren. Han gertatutako gorabeherak kontatzen ditu senarrarekin batera.

9. Ikaragarria zen Madril

- **Erref:** VIL-005/025
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:43:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ezkonberritan, Madrilera joan ohi ziren urtero. Hiri ikaragarria iruditzen zitzaien. Metroz ibiltzen zirela kontatzen dute. Pepitaren senarrak kontatzen du pasartea

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com